

plata del Santo fuera conducida por mar hasta Cádiz. Los gaditanos hicieron al Santo á su entrada en el puerto honores de Capitan General.

El edificio, durante estos acontecimientos, se mantuvo cerrado, ménos el tiempo que trascurrió desde el año de 1813 al de 1816 en que sirvió de hospital militar para las tropas españolas. Mas la Santa Casa siguió siempre abierta, y en ella se celebró la misa todos los domingos y fiestas de guardar.

Concluida la guerra, la estatua de plata, alhaja que de entre todas las ocultas se había salvado, fué trasladada, en virtud de Real permiso que obtuvo la Diputacion de Guipúzcoa, de Cádiz á la iglesia parroquial de Santa María, de esta Ciudad, y aquí permaneció hasta 1816. Hacia fines de aquel año fué conducida á Loyola en procesion y entregada por la Diputacion á los Padres de la Compañía, que acababan de restablecerse en dicha Santa Casa.

---

## ALOÑAPEKO AGERKERA.

---

» adarorkizu; orra nun dezun:  
 ▷ ranza baten gañian  
 ▷ ora guzien lora nausiya  
 ▷ eruko-Erregiña aurrian.  
 ▷ uspeztu zaite; agur eiozu:  
 ▷ Goñatira jeistian,  
 ▷ rritar danaí esan zayezu  
 ▷ gotzeko ariñ batian.

Esan zayezu, etorri zaizten  
 Neke, legorte, gaizkiak,  
 Erres kenduko ditubela, bai,  
 Ama Birjiña Mariak;  
 Berok benetan biotz-damutuz  
 Ontzen badira guztiak,  
 Aren Seme Jaun Jaungoikoarekiñ  
 Egiñik oso pakiak.

Beren bekatu audiakgatik  
 Etorri izandu dirala  
 Errietara gaitz oyek danak,  
 Ekaitzaldi bat bezala;  
 Bere eskuban Ama Birjiñak  
 Jainkoarena daukala;  
 Bere mantupe-azpira danik  
 Iñor galduzen ez dala.

Igo-baño leen Goñatiarrak  
 Aloñapeko basora,  
 Aitorturikan bota bitzate  
 Pekatu danak kanpora:  
 Erregu eta kanta umillez  
 Gesalza-albotik jun gora,  
 Arkaitz-arteko elortegitik  
 Birjiña Amaren ondora.

Itz-aldi oyek aitu orduko  
Bere biyotza suturik,  
*Balzategiko* artzai gaztea  
Abiatzen da pozturik  
Goñatirako bide-aldera,  
Ta asmo-betean sarturik  
Mendiratzeko erri guzia,  
Bere-ondoren goiturik.

Aloña-atzeko gertakizun au  
Goñatiarrak aitzean,  
Indartsuenak asitzen dira  
Gogoz mendira-nayean;  
Errodrigo-ri jarraiturikan  
Basamortuko bidean,  
Alai dijoaz basorik-baso  
Chara ta sasi artean.

«¡¡Ara, diote, arriturikan,  
Ara, elorri-arantza!!  
¡Ara gañean erdi-erdiyan  
Birjiñ-Amaren ekantza;  
Ezkilla dago besangatikan  
Zinzilikta ta balantza;  
Besoetako Jesus-ek ere,  
Birjiñarena du antza!...»

Egiten dute estalpecho bat,  
Kantarik *salbe-gozoak*;  
Alkar-aiturik, ustez ederki,  
Amen dituzte asmoak,  
Eramateko Ama Birjiña  
Utzita arkaizte basoak;  
Baña bestera izandu ziran  
Birjiñ-beraren gogoak.

An gelditzen da, mirari andiz  
Adirazirik danori,  
Eliz aundi bat jasorik anche  
Jainko Jesus-en Amari,  
Naiko zuela kristau leyaiaik  
Erregutzea berari,  
Graziak andik f̄suritzeko  
Euskal-errira ugari.

Ara ordutik arkaitz-artean  
Agerkeraren lekuba,  
Zeruko-zelai baratza eta  
Lorategitzat sortuba:  
An alchaturik San Franziskoren  
Semedi eder santuba,  
Ai da zabaltzen bertute danen  
Usai, lora ta frutuba....

JOSÉ IGNACIO ARANA-KOAK.